

### OSOKO BILKURA 2022-01-27

**Organoa:** Udal Plenoa

**Izaera:** Ohikoa

**Deialdia:** Lehena

**Eguna:** 2022-01-27

**Ordua:** Hasiera 18:30etan.

Bukaera 18:45etan.

**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

#### **Bertaratuak:**

Alkatea: Iزارo Elorza Arregi andrea (EH Bildu)

#### **Zinegotziak:**

- .- Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
- .- Anik Maitane Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)
- .- Iñaki Olalde Altzelai jauna (Bildu)
- .- Iker Oñate Ayastuy jauna (EH Bildu)
- .- Susana Altuna Ugarte andrea (EH Bildu)
- .- Alaitz Kortabarria Igartua andrea (EH Bildu)
- .- Asier Iraeta Izagirre jauna (EH Bildu)
- .- Karmelo Guridi Gallastegi jauna (EH Bildu)
  
- .- Ainhoa Galdos Olazar andrea (EAJ-PNV)
- .- Andoni Altuna Uribe jauna (EAJ-PNV)
- .- Miren Amaia Erostarbe Letamendi andrea (EAJ-PNV)
- .- Jon Kepa Guerricagoitia Arrien jauna (EAJ-PNV)
- .- Maria Jose Etxegoien Arzuaga andrea (EAJ-PNV)
- .- Nerea Altube Galdos andrea (EAJ-PNV)
- .- Angel Biain Peña jauna (EAJ-PNV)

1

Idazkaria: Iñigo Roldan Catalan jauna

Kontu-hartzailea: Paskual Elustondo Darpon jauna

#### **Ez da bertaratu:**

- .- Maite Anton Leno andrea (EH Bildu)

#### **AZTERGAIK**

1. Onartzea, hala badagokio, 2021-12-16ko ohiko osoko bilkuraren akta, (12.2021).
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Santxolopeztegiko auzo-alkate berria izendatzeko proposamena onartzea Zerbitzuak eta Landa garapen Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko abenduaren 14an.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2022rako soldata igoera onartzea, pertsonal eta barne antolaketa Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko urtarrilaren 17an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: II.12 H.G. Munazategi sektoreko sarrera egokitzeko, GI-2630 errepidean biribilgunea egiteko Hirigintzako Arau Orokorren aldaketa puntuala behin betiko onartzea, Hirigintza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko urtarrilaren 19an.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Hiri Antolaketarako Arauen aldaketa puntuala behin behinean onartzea, Lurzoru Urbanizaezineko Babes Bereziko-

- eta Nekazaritza eta Abelauntzarako Zonetan erauzketa erabileraren inguruan, Hirigintza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko urtarrilaren 19an.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko ikastetxeak eta guraso elkarteak diruz laguntzeko arautegiaren oinarriak eta 2022ko diru-laguntzen deialdia onartzea, Hezkuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko urtarrilean.
  7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren eremuan lan egiten duten elkarteentzako diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartzea eta 2022ko deialdia irekitzea, Berdintasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko urtarrilaren 20an.
  8. Hala badagokio, presako gaiak.
  9. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
  10. 2021eko abenduaren 11tik 2022 urtarrilaren 20ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 1257 zenbakitik 33 zenbakira.
  11. 2022ko Toki Gobernuko Batzordeen akten berri ematea (1. Saioa).
  12. Galderak eta eskaerak.

Akta honen parte da saioaren soinu-grabazioaren ondoriozko fitxategia. MP3 formatuko fitxategi bat da, Udaleko Zerbitzariaren saioko karpetan dagoena, osoko bilkuraren datarekin.

#### BILERA:

##### 1.- Onartzea, hala badagokio, 2021-12-16ko ohiko osoko bilkuraren akta, (12.2021).

Alkateak galdetu du ea Udalbatzako kideren batek oharren bat egin behar duen aurreko bilkurako aktari buruz. 2021eko abenduaren 16ko bilkura agiria irakurri eta aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

2

##### 2.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Santxolopeztegiko auzo-alkate berria izendatzeko proposamena onartzea Zerbitzuak eta Landa garapen Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko abenduaren 14an.

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Santxolopeztegiko auzo-alkate berria izendatzeko proposamena onartzea (1003/esp) (3820/sar).

2021eko abenduaren 14an egindako Zerbitzuak eta Landa garapen batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Aitor Gerenabarrena Osa jauna, Oñatiko Nekazaritza-Auzoak eta Ingurumen teknikariak eta batzar idazkaria ziurtatzen duenez.

*“2021eko azaroaren 23ko sarrera-data duen idatziaren bitartez Santxolopeztegiko auzo-alkatea den Juan Gordo Mendizabal jaunak kargua uzten duela adierazi du. Horrekin batera, hemendik aurrera auzo-alkate berria Garazi Billar andrea izango dela azaldu du.*

*Gaia aztertu ondoren, Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordeak aho batez eskatu dio Udal Osoko Bilkurari izendatu dezala Garazi Billar Ormazabal andrea Santxolopeztegiko auzo-alkate.”*

1.- Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 122. artikulua honako hau dio:

*“1. Hirigunetik bereizitako eta toki-erakunderik osatzen ez duten herrixka eta auzune bakoitzean, alkateak ordezkari pertsonal bat izendatu ahal izango du horietan bizi diren bizilagunen artean.*

*2. Alkateak ordezkari horiek izendatu ahal izango ditu, halaber, zerbitzuen funtzionamendua hala gomendatzen duen hiritan. Ordezkariak bere eginkizunak betetzen dituen gunean bertan egon beharko du.*

*3. Karguaren iraupena izendatu zuen alkatearen agintaldiaren arabera izango da, eta alkateak egoki irizten dionean mugiarazi ahal izango du.*

4. Ordezkariek agintari-izaera izango dute udal-eginkizunak betetzean, izendatu zituen alkatearen ordezkarari diren aldetik.”

Azaldutakoagatik, Zerbitzuak eta Landa Garapen batzordearen oniritziarekin, Osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**Lehenengoa.-** Garazi Billar Ormazabal andrea Santxolopeztegiko auzo-alkate izendatzea.

**Bigarrena.-** Izendapen honek legegintzaldi honen bitartean izango du indarra.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta, eta Zerbitzuak eta Landa garapen Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**3.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2022rako soldata igoera onartzea, pertsonal eta barne antolaketa Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko urtarrilaren 17an.**

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** 2022rako soldata igoera onartzea.

I.- 22/2021 Legeak, abenduaren 28koa, Estatuaren 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa (EAO 2021.12.29), 18.Bi puntuan, honakoa dio:

“19.artikulua

*Bi. 2022. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariek ezin izango dute ehuneko 2ko igoera baino handiagoa izan 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, alderaketaren bi aldietarako homogeneousunari dagokionez, bai langileen kopuruari bai antzinasunari dagokienez.”*

Estatuko aurrekontuen legeak diotenari jarraikiz, Pertsonal Batzordeari proposatzen zaio Oñatiko Udaleko enplegatu publikoen 2022ko soldatei % 2ko igoera aplikatzea.

2022rako Oñatiko Udal aurrekontuetan enplegatu publikoen soldaten igoera % 2,5koa izango zela aurreikusita zen. Horren ondorioz, gaur proposatzen den igoera 2022.urterako aurrekontuetan aurreikusita dago, ordainsariei lotutako partidetan, konkretuki 6 0900.100.000.00.00 2022 lotespen-mailaren kargura.

2022ko urtarrilaren 17an egindako Pertsonal eta Barne antolakuntza batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Izaskun Querejeta Aguirre andrea, Oñatiko Pertsonal eta barne antolakuntza teknikariak eta batzar idazkaria ziurtatzen duenez.

2022ko urtarrilaren 10ean, alkate proposamenaren bitartez, 2022rako soldata igoera onartu zen 22/2021 Legean, abenduaren 28koan, Estatuaren 2022rako Aurrekontu Orokorrei Buruzkoan oinarrituta.

“2022. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariek ezin izango dute ehuneko 2ko igoera baino handiagoa izan 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, aldatetaren bi aldietarako homogeneotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari bai antzintasunari dagokionez”.

Gaia aztertu ondoren, Giza Baliabide eta Antolakuntza Batzordeak aho batez honako erabakia har dezala eskatzen dio Udal Osoko Bilkurari: Oñatiko Udal enplegatutako publikoen soldata eta antzintasuna %2an igotzea (22/2021 Legearen 19. Artikuluaren Bi. Puntuan oinarrituta).

“

”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela, 2022ko urtarrilaren 12ko Kontu-hartzailearen txostenean adierazten den moduan.

Gaia azterturik, eta pertsonal batzordearen aldeko irizpenarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**LEHENENGOA.-** 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginkortasunarekin 2021eko abenduaren 31n indarrean zirenekiko, Oñatiko Udaleko enplegatutako publikoen soldata % 2an igotzea bai eta antzintasuna ere (22/2021 Legearen 19.artikuluaren Bi. puntuan oinarrituta).

**BIGARRENA.-** Erabaki hau pertsonal saila eta kontu-hartzaileari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta, eta Pertsonal eta Barne antolakuntza Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

4

**4.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: II.12 H.G. Munazategi sektoreko sarrera egokitzeko, GI-2630 errepidean biribilgunea egiteko Hirigintzako Arau Orokorren aldaketa puntuala behin betiko onartzea, Hirigintza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko urtarrilaren 19an.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** II.12 H.G. Munazategi sektoreko sarrera egokitzeko, GI-2630 errepidean biribilgunea egiteko Hirigintzako Arau Orokorren aldaketa puntuala behin betiko onartzea

2022ko urtarrilaren 19an egindako Hirigintza batzordearen akta, Iñaki Landa Azkoaga (Hirigintza Batzordeko idazkaria eta Udal arkitektoa) sinatua. Honela dio:

*“II.12 H.G. Munazategi sektoreko sarrera egokitzeko, GI-2630 errepidean biribilgunea egiteko Hirigintza Antolaketako Arauen aldaketa puntuala behin behineko onartzea erabaki zuen Osoko Bilkurak, 2021eko uztailaren 22an.*

*Erabaki horrekin batera, espedientea bidali zitzaion Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolakuntzarako Batzordeari, dagokion txostena egin zezan.*

*Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2021/11/8ko 213 zenbakidun GAO), Udal Iragarki Taulan eta Gara (2021/11/04) nahiz El Diario Vasco (2021/11/04) egunkarietan argitaratu zen Erabakia.*

*Jendearen agirian egon den epean ez da jaso dokumentuari buruzko alegaziorik.*

*Orain, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen aldeko txostena jaso da.*

*Horrez gain, Ur Agentziak aldeko txostena eman du.*

*Gaia aztertu ondoren, II.12 H.G. Munategi sektoreko sarrera egokitzeko, GI-2630 errepidean biribilgunea egiteko Hirigintza Antolaketako Arauen aldaketa puntuala behinbetiko onartzea eskatzen dio Batzordeak Osoko Bilkurari.*

*Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen, otsailaren 2ko, 7/1985 Legearen 70. artikulua arabera, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.”*

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen **62.1 artikulua** honako hau ezartzen du:

*“1.- Plan orokorren edukia agiri hauetan formalizatuko da gutxienez:*

*a) Memoria informatiboa eta justifikatiboa. Plangintza-ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen elementuak dakartzan informazio guztia jaso beharko du; zehazki, erabakiak hartzeko alternatibak formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta aukeratutako soluzioen justifikazioa.*

*b) Ingurumen-kalteari buruzko aurretiazko txostena betetzearen memoria justifikatiboa. Memoria horretan, gainera, garapen eramangarriaren ikuspuntutik arrazoitu beharko da hautatutako antolamendua, eta lurzoruak planean aurreikusitakoa betetzeko duen hartze-gaitasuna ere kontuan izan.*

*c) Informazio-planoak.*

*d) Egiturazko antolamenduaren planoak.*

*e) Antolamendu xehatuaren planoak.*

*f) Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.”*

Gainera, **91. artikulua** dio:

*“1.- Plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumena udalei dagokie 7.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, eta foru-aldundiei gainerakoetan; kasu bietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak txostena egin beharko du aurretiaz.*

*2. Plan orokorra udalak onartuko du behin-behingo eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaliko dio. Batzordeak txostena egingo du, eta txostenak dioena loteslea izango da plan orokorra lurralde-antolamenduko tresnei egokitzeari dagokionez eta, aplikagarri den araudiaren arabera eta onartutako udalez gaineko proiektuen arabera, Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo lurraldeko administrazioaren eskumeneko diren alderdi sektorial guztiei egokitzeari dagokionez.*

*3.- Batzordeak plana jaso eta hiru hilabeteko epean txostena eman ez badu, aurrera egin ahal izango da izapideekin. Plan orokor bat ezin izango da behin betiko onartu, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak txostena eman ez badu edo hori egiteko epea amaitu ez bada. Manu hau bete gabe onartzen diren plan orokorrak erabat deusezak izango dira. Alabaina, txostena epez kanpo ematen bada, ez da nahitaez kontuan hartuko plana behin betiko onartzeko orduan.”*

*4. Dagozkion aldaketak egin ondoren, udalak behin betiko onartuko du plan orokorra, edo, hala badagokio, foru-organoari bidaliko dio espedientea, hiru hilabeteko epean behin betiko onar dezan.*

*5. Udalak edo foru-aldundiak, dagokionaren arabera, behin betiko onartu ahal izango du plana, behin betiko onarpena eten ahal izango du, edo behin betiko onarpena ezetsi, arrazoiak emanez. Ezespena partziala izan daiteke, artikulua honetan ezarritako baldintzetan.”*

Udaleko Hirigintza arduradunaren txostena, 2022ko urtarrilaren 18koa, dago espedientean.

Udaleko idazkariaren 1/2022 txostena, urtarrilaren 24koa, dago espedientean.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 47. artikulua honako hau xedatzen du:

*“2. Korporazioetako legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar da honako gai hauetan erabakiak hartzeko:*

*LL) Korporazioak hirigintza-legerian aurreikusitako plangintza orokorreko tresnak izapidetzean hartu beharreko erabakiak.”*

Azaldutakoagatik, Hirigintza batzordearen oniritziarekin, Osoko bilkurari honako hau proposatzen zaio:

**Lehenengoa.-** II.12 H.G. Munazategi sektoreko sarrera egokitzeko, GI-2630 errepidean biribilgunea egiteko Hirigintza Antolaketako Arauen aldaketa puntuala behin betiko onartzea, 2020ko iraileko dokumentuaren arabera.

**Bigarrena.-** Onartutako aldaketaren dokumentuaren kopia igortzea foru-aldundiko erregistroari, bertan gordailatzeko.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau eta hirigintzako arauak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 2/2006 Legearen 89.5 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

**Laugarrena.-** Erabaki hau lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian argitaratu.

---

Gaia aztertuta, eta Hirigintza Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**5.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Hiri Antolaketarako Arauen aldaketa puntuala behin behinean onartzea, Lurzoru Urbanizaezineko Babes Bereziko- eta Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Zonetan erauzketa erabileraren inguruan, Hirigintza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko urtarrilaren 19an.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Hiri Antolaketarako Arauen aldaketa puntuala behin behinean onartzea, Lurzoru Urbanizaezineko Babes Bereziko- eta Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Zonetan erauzketa erabileraren inguruan.

2022ko urtarrilaren 19an egindako Hirigintza batzordearen akta, Iñaki Landa Azkoaga (Hirigintza Batzordeko idazkaria eta Udal arkitektoa) sinatua. Honela dio:

*“Oñatiko Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspena behin betiko onartu zuen Diputatuen Kontseiluak 2005eko apirilaren 12an eta Testu Bategina GAOn argitaratu zen 2006ko ekainaren 29an.*

*Aipatutako arauak onartzeko testuingurua eraldatu zen Aizkorri Aratzeko parke naturalaren izendapena eta erabilerak arautzeko instrumentuak onartzerakoan: Aizkorri- Aratz aldea Parke Natural deklaritzen duen, apirilaren 4ko, 76/2006 Dekretua eta Aizkorri- Aratz aldeko Natur Baliabideak Antolatzeko Plana onartzen duen, apirilaren 4koa, 75/2006 Dekretua, alegia. Gainera, Natura 2000 Sarean egokitzen da aipatutako espazioa.*

*Hori horrela izanik, Lurzoru Urbanizaezinean eragin zuzena dute aipatutako xedapenek eta kontrajarriak dira, neurri handi batean, espazio zehatz batzuen kontserbaziorako, tokiko habitatak bizirik jarraitzeko zein Lurzoru Urbanizaezinen bokaziorako.*

*Hori kontuan hartuta, erauzketa jarduerak (harrobiak, hain zuzen ere) Lurzoru Urbanizaezineko Babes Bereziko Nekazaritza eta Abelazkuntzarako eta Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Zonetan garatzeko aukera ekiditea beharrezkotzat jo zuen Udalak, Kontserbazio Bereziko Eremuak dituen interes naturalistikoek babeserako; flora, fauna eta habitat naturalak, alegia.*

*Horretarako, Lurzoru Urbanizaezineko Babes Bereziko Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Zonen erabilera onargarrien inguruan, Hiri Antolaketako Arauen 11, 65 eta 74 artikuluen aldaketa behin-*

betiko onartzea erabaki zuen Osoko Bilkurak, 2018ko martxoaren 22an, aipatutako artikuluen idazketa berria honako izanik:

- 11. artikulua. Zona eta sistema Orokorren erabilera arau orokorrak.
- 4. Zona eta Sistema Orokorren erabilera erregimen orokorra.
- C-4 Zona. Babes Bereziko Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Eremua.
- Erabilera nagusiak:
  - \* Nekazaritza.
  - \* Abelazkuntza.
  - \* Basogintza.

Erauzketa erabilerak ezabatuko dira.

65. artikulutik 14. atala Erauzketak. Harrobia ezabatuko da.

2.2.4 Ataleko (Babes Bereziko Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Zonari Buruzko Arauak) 74. Artikulua (Baimendutako eraikinak):

“65. artikuluan erregulatutako eraikin guztiak baimenduko dira, artikulua horretan bertan jasotako baldintzetan betiere, honako hauek izan ezik: Interes publikoko zerbitzuak izan arren inguruan dauden baserri-auzuneen beharrek zuzenean lotu gabekoak, eta granjak. Arantzazuko harrobiaren ustiapena baimentzen da, bakarrik eta eskusiboki gaur egungo lurralde mugen barne eta Udal Plangintzarako Arau Ordezko hauen agiri grafikoan ageri den mugaketaren barne geratuko dena.”

21/2013 Legearen arabera, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak Ingurumengintzaren estrategikoa eman zuen, 2021eko uztailaren 13ko Ebazpenaren arabera. Horren arabera, ez da aurreikusten aipatutako aldaketak kontrako eragin esanguratsurik izan dezakeenik ingurumenean, eta, hortaz, ez da ohiko ingurumen- ebaluazio estrategikoa egin behar. Bestalde, Telekomunikazioei buruzko 9/2014 Lege orokorraren 35.2 artikulua arabera, aldeko txostena eman zuen Telekomunikazio eta Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzuen Antolamendu Zuzendaritza Nagusiak, txostenean jasotako zuzenketak egiteko baldintzapean.

Oñatiko Udal Plangintzako Aholku Kontseiluak dagokion txostena egin zuen 2021eko irailaren 21ean egindako bilkuran.

Horrela, aipatutako Hiri Antolaketako Arauen aldaketa puntualaren hasierako onarpena egitea erabaki zuen Osoko Bilkurak, 2021eko irailaren 27an.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2021/11/29ko 228 zenbakidun GAO), Udal Iragarki Taulan eta Gara (2021/11/23) nahiz El Diario Vasco (2021/11/23) egunkarietan argitaratu zen Erabakia.

Jendearen agirian egon den epean (2021eko abenduaren 30 arte) ez da jaso dokumentuari buruzko alegaziorik. Epez kapo, Aridos Aloña SL enpresaren alegazio idatzia jaso da, (2022ko urtarrilaren 18an, alegia).

Laburbilduta, honako hauek dira adierazitako alegazioak:

- 1.- Oñatiko Hirigintzako Arau Ordezkoak ekainak 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintza legeari 15 urteko epean ez egokitzean, ezin da Arau Ordezkoen Aldaketa puntualik egin.
- 2.- Partaidetza programarik ez egotea.
- 3.- Lizentziak eteteko akordioa berregitea 5 urteren buruan (2/2006 Legeko 85.5 artikulua).

Aholkularitza juridikoak egindako txostenaren arabera, Aridos Aloña enpresak egindako alegazioak ez dira onargarriak. Dokumentu hori espedienteari erantsiko zaio eta hemen kopiatutzat jotzen da. Laburbilduta, honako hauek dira emandako arrazoibideak:

- 1.- 2/2006 Legeko bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako egoera emango balitz ere, arauak egokitze zehaztutako 15 urteko epea gairatuta egotea, alegia, baliorik gabe utziko ez lukeen irregulartasuna izango litzateke, asko jota ere.
- 2.- Partaidetza programa egon badago, Osoko Bilkurak onartutako 2021eko uztailaren 22an.

3.- 2020ko ekainaren 26ko 219/2020 Sententziak erabat deuseza aldarrikatu zuen aurreko Erabakia eta, hortaz, indargabe utzi zuen.

Horrez gain, Aireportuen eta Aireko Nabigazioaren Zuzendariordetza Nagusiak aldeko txostena eman du.

Gaia aztertu ondoren, aipatutako Hirigintza Antolaketako Arauen aldaketa puntuala behin behineko onartzea eskatu dio Batzordeak Osoko Bilkurari.

Erabaki honekin batera, espedientea bidaliko zaio Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolakuntzarako Batzordeari, dagokion txostena egin dezan.”

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen **62.1 artikulua** honako hau ezartzen du:

“1.- Plan orokorren edukia agiri hauetan formalizatuko da gutxienez:

a) Memoria informatiboa eta justifikatiboa. Plangintza-ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen elementuak dakartzan informazio guztia jaso beharko du; zehazki, erabakiak hartzeko alternatibak formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta aukeratutako soluzioen justifikazioa.

b) Ingurumen-kalteari buruzko aurretiazko txostena betetzearen memoria justifikatiboa. Memoria horretan, gainera, garapen eramangarriaren ikuspuntutik arrazoitu beharko da hautatutako antolamendua, eta lurzoruak planean aurreikusitakoa betetzeko duen hartze-gaitasuna ere kontuan izan.

c) Informazio-planoak.

d) Egiturazko antolamenduaren planoak.

e) Antolamendu xehatuaren planoak.

f) Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.”

Halaber, lege horren **90. artikulua** 5. Eta 6. Ataletan honako hau xedatzen du:

“ 5. Udalak hasierako onespena emango dio plan orokorrari, eta jendaurrean jarriko du, udalerriri dagokion lurralde historikoko aldizkarian eta lurraldean zabalkunde handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz, azken argitalpenetik hilabeteko epean. Era berean, hasierako onarpena jakinaraziko zaie, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten, eskumen sektorialak dituzten administrazio publikoei, eta Arabako udalen kasuan, baita udalerriko administrazio-batzarrei ere.

6. Jendaurreko erakustaldiaren emaitzak ikusita, udalak behin-behingo onartuko du plan orokorra, bidezko iritzitako egokitzapenak eginda. Dena den, egokitzapen horiek hasieran aurreikusitako egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen badute, udalak hasierako onespena eman beharko dio berriz planari eta jendaurreko erakustaldia irekiko du berriz, behin-behingo onartu aurretik.”

Gainera, **91. artikulua** dio:

“1.- Plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumena udalei dagokie 7.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, eta foru-aldundiei gainerakoetan; kasu bietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak txostena egin beharko du aurretiaz.

2. Plan orokorra udalak onartuko du behin-behingo eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaliko dio. Batzordeak txostena egingo du, eta txostenak dioena loteslea izango da plan orokorra lurralde-antolamenduko tresnei egokitzeari dagokionez eta, aplikagarri den araudiaren arabera eta onartutako udalez gaineko proiektuen arabera, Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo lurraldeko administrazioaren eskumeneko diren alderdi sektorial guztiei egokitzeari dagokionez.

3.- Batzordeak plana jaso eta hiru hilabeteko epean txostena eman ez badu, aurrera egin ahal izango da izapideekin. Plan orokor bat ezin izango da behin betiko onartu, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak txostena eman ez badu edo hori egiteko epea amaitu ez bada. Manu hau bete gabe onartzen diren plan orokorrak erabat deusezak izango dira. Alabaina, txostena epez kanpo ematen bada, ez da nahitaez kontuan hartuko plana behin betiko onartzeko orduan.”

Azaldutakoagatik, Hirigintza batzordearen oniritziarekin, Osoko bilkurari honako hau proposatzen zaio:



**Lehenengoa.-** Hiri Antolaketarako Arauen aldaketa puntuala behin behinean onartzea, Lurzoru Urbanizaezineko Babes Bereziko- eta Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Zonetan erauzketa erabileraren inguruan, 2021eko martxoko dokumentuaren arabera.

**Bigarrena.-** Espedienteari egindako alegazioak guztiz gaitzestea.

**Hirugarrena.-** Erabaki honekin batera, espedientea bidaliko zaio Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolakuntzarako Batzordeari, dagokion txostena egin dezan.

**Laugarrena.-** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian argitaratzea.

**Bostgarrena.-** Erabaki honen berri Aridos Aloña enpresari ematea, jakinarazita erabaki horren aurka ezin izango dela errekurtsorik aurkeztu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan ezarritakoaren arabera, izapide-egintza bat delako.

---

Gaia aztertuta, eta Hirigintza Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**6.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko ikastetxeak eta guraso elkarteak diruz laguntzeko arautegiaren oinarriak eta 2022ko diru-laguntzen deialdia onartzea, Hezkuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko urtarrilean.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Oñatiko ikastetxeak eta guraso elkarteak diruz laguntzeko arautegiaren oinarriak eta 2022ko diru-laguntzen deialdia onartzea.

9

Iñaki Akizu (Hezkuntza batzordearen idazkaria eta teknikaria) 2022eko urtarrilaren 18an egindako Hezkuntza Batzordearen sinatutako aktak dio:

*“Oñatiko ikastetxeak eta guraso elkarteak diruz laguntzeko arautegia. Oinarriak eta 2022ko dirulaguntza deialdia onartzea.*

*Teknikariak azaldu du 2017 urtean gauzatu zela herriko ikastetxeak eta guraso elkarteak diruz laguntzeko arautegia lege baldintza berrietara egokitzeko prozesua, oinarriak 2017-02-23ko Osoko Bilkuran onartu ziren eta 2017-03-06ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu. 2020-2021*

*Ikastetxe eta guraso elkartearen jarduna diruz laguntzen duen arautegian hainbat egokitzapen gauzatzea proposatzen da.*

*Batetik, Lege betebeharretara egokitzen joan eta eskaerak erregistro elektronikoan aurkeztea sustatuko da eragilean gauzatu beharreko egokitzapenak bideratuz. Edozein kasutan HAZ zerbitzuan aurkezteko aukera ere eskainiko da.*

3.Puntuaren redakzioa honela geratzen delarik:

**3.- Eskariak aurkezteko lekua eta dokumentazioa.**

*Eskariak Oñatiko Udaleko Erregistro elektronikoan aurkeztu daitezke, telematikoki, nahiz HAZ zerbitzuan. Eskariak Hezkuntza Departamenduan tramitatuko dira.*

*Horrekin batera, dirulaguntzaren onarpenaren eta likidazioaren ebazpeko organoa Tokiko Gobernu Batzarra ezartzen da batetik eta banakako paperezko jakinarazpenak ordezkaturako dira deialdiaren ebazpen laburtua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Udalaren web gunean kontsultagarri jarrita ebazpenaren eduki osoa. Oinarrien 10 eta 13. Puntuetan txertatu dira egokitzapenak testua honela geratu delarik:*

**10. Erabakitzeko eta jakinarazteko epea**

Prozedura aztertzeke, ebazteko eta jakinarazteko epea gehienez ere hiru hilabetekoa izango da. Epea kalkulatzeko, deialdia argitaratzen den eguna hartuko da kontuan.

Prozeduraren instrukzioa egin ondoren, eta ebazpen-proposamena idatzi aurretxoan, 39/2015 Legearen 82 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, entzunaldiaren tramitea beteko da, salbu eta soilik interesdunek emandako egintzak, probak eta alegazioak baino ez badira kontuan hartzen edo agertzen prozeduran.

Ebazpenak administrazio-bidea amaitzen du. Diru-laguntzen onuradunen onarpena Tokiko Gobernu Batzarrak eman beharko du.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpena laburtuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://www.xn--oati-gqa.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

### 13. Ordainketa erak eta epeak.

Arau orokor gisa, oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzak era honetan ordainduak izango dira, eta diru laguntza bakoitzaren eranskinean bestelakorik xedatzen ez bada: Programa honen kontura emandako diru-laguntzak bi zatitan ordainduko dira: % 60 ebazpena eman eta handik 15 egunera eta gainontzeko % 40 urteko memoria aurkeztu eta onartu ondoren. Likidazioa Tokiko Gobernu Batzarrak onartu beharko du.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpena laburtuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://www.xn--oati-gqa.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

10

Dirulaguntzaren oinarriak aldatu direnez, Euskara-Hezkuntza Batzordeak Osoko Bilkurari Hezkuntza Departamentuak kudeatzen dituen programaren kontura emango diren dirulaguntzen oinarri berriak onartzea, 2.022 urteko dirulaguntza deialdia egitea eta berau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea onar dezala proposatu du. Ikastetxeek eta guraso elkarteek eskaerak aurkezteko hilabeteko epea izango dute deialdia boletinean argitaratzen denetik.”

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitorzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Jasota dago espedientean kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Azaldutakoagatik, Hezkuntza batzordearen oniritziarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**LEHENENGOA.-** Oñatiko ikastetxeak eta guraso elkarteak diruz laguntzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartzea, proposaturiko aldaketekin, eta 2022ko deialdia irekitzea.

**BIGARRENA.-** Diru-laguntza honek dakartzan gastua onartzea aurrekontuko dagokion diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen bidez onartuko diren oinarri arautzaileek eragina izango dutela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera.

**LAUGARRENA.-** Deialdi honen iragarkia Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (DNS) argitaratzea.

**BOSTGARRENA.-** Erabaki hau kontu-hartzaileari eta teknikari sustatzaileari jakinaraztea.

**SEIGARRENA.-** Erabaki hau behin betikoa izango da eta amaiera emango dio administrazio bideari.

Interesatuek erabaki horren aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsioa aurkeztu izango dezaketela Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera izango dutela horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsioa aurkezteko Osoko Bilkurari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekursorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekursio aurkez daiteke.

---

Gaia aztertuta, eta Hezkuntza Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**7.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren eremuan lan egiten duten elkarteentzako diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartzea eta 2022ko deialdia irekitzea, Berdintasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko urtarrilaren 20an.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren eremuan lan egiten duten elkarteentzako diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartzea eta 2022ko deialdia irekitzea.

Jone Arriolabengoa Martiarena (Berdintasun batzordearen idazkaria eta teknikaria) 2022eko urtarrilaren 20an egindako Berdintasun Batzordearen sinatutako aktak dio:

“2021eko uztailaren 22ko Osoko Bilkuran onartu zen Oñatiko Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana zeinak besteren artean ondorengoak aurreikusten dituen:

3. Emakumeen ahalduntzea. 3.2. Emakumeen partaidetza soziopolitiko eta eragina sustatzea. 3.2.1. Mugimendu feministaren eta emakumeen antolakuntza gaitasunak eta eragin politikoa indartzeko esku-hartzeak martxan jartzea, eta egun daudenak babestea: “Laguntza ekonomikoa, materiala eta teknikoa ematea mugimendu feministari, emakumeen elkarte mugimenduari eta berdintasunaren aldeko konpromiso berezia duten elkarteei, euren programa era autonomoan garatu ahal izateko”.

Helburu hori oinarri hartuta, 2022ko urtarrilaren 118an egin zen bileran Berdintasunerako Batzordeak aho batez onartu zuen Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren eremuan lan egiten duten elkarteentzako diru laguntzen oinarri arautzaileak, eta hauen arabera deialdia burutzea 2022 urtean.

Hala, Berdintasun Batzordearen eta Ogasun Batzordearen aldeko irizpenarekin **Osoko bilkurari ondorengo ebazpen proposamenak egiten zaizkio:**

- LEHENENGOA.- Onartzea jarraian ageri den “gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren eremuan lan egiten duten elkarteentzako diru-laguntzen oinarri arautzaileak”.
- BIGARRENA. - onartzea aipatutako diru laguntzen 2022ko deialdia
  - 1.- Finantziazioa:
    - 2022ko aurrekontu ekitaldiari dagokion deialdirako, 5008.20€-ko gastua baimentzea, aurrekontuko 1 0503.481.231.50.01 2022 (780) diru atalaren kargura.
  - 2.- Eskaerak aurkezteko epea.
    - Eskabideak aurkezteko epealdia 30 egunekoa izango da, Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu hurrengo egunetik kontatzen hasita.”

12

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere **3. Artikuluan 1 eta 2** ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts

*publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”*

Jasota dago espedientearen kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Azaldutakoagatik, Berdintasun batzordearen oniritziarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**LEHENENGOA.-** Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren eremuan lan egiten duten elkarteentzako diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartzea eta 2022ko deialdia irekitzea

**BIGARRENA.-** Diru-laguntza honek dakartzan gastua onartzea (5008,20€-ko gastua) aurrekontuko 1 0503.481.231.50.01 2022 (780) diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen bidez onartuko diren oinarri arautzaileek eragina izango dutela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera.

**LAUGARRENA.-** Deialdi honen iragarkia Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (DNS) argitaratzea.

**BOSTGARRENA.-** Erabaki hau kontu-hartzaileari eta Berdintasun teknikariari jakinaraztea.

**SEIGARRENA.-** Erabaki hau behin betikoa izango da eta amaiera emango dio administrazio bideari.

Interesatuek erabaki horren aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkeztu izango dezaketela Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera izango dutela horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Osoko Bilkurari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

---

13

Gaia aztertuta, eta Berdintasun Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

## **8.- Hala badagokio, presako gaiak.**

Alkatearen eskariz, presazko gai bat (ogasun batzordekoa) gai-zerrendan sartzeko behar diren urratsak egin ondoren, hau da, gaia arrazoitzea (espedientearen deialdia egiterakoan ez zegoen oraindik prest eta premiazkoa da espediente horren erabaki bat hartzea) eta bertaratuen gehiengoaren botoa lortzea, gai hauek zerrendan sartzeko erabaki da 16 boto aldekoekin (9 EH BILDU + 7 EAJ).

### **8.1.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko urtarrilaren 25an.**

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Interes bereziko obrak.

2022ko urtarrilaren 25an egindako Ogasun batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Ogasun Batzordeko idazkaria eta Kontu-hartzailea (Paskual Elustondo Darpon jauna), ziurtatzen duenez.

“3.- *Interes bereziko obrak*

Hainbat herritar eta erakundek eskatu dituzte beren eraikinetako obra-baimenak. Aldi berean eskatu dute, aurtengo Zerga Ordenantzak xedatutakoaren arabera Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren hobaria aplikatu ahal izateko, egin beharreko obrak interes berezikotzat edo udal onurakoak izenda daitezela.

Kontu-hartzaileak zera dio:

a) Aurtengo Udal Zerga Ordenantzak EIOZen hobarien 3.puntuari zera dioela:

“3.-15/1989 Foru Arauren “Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga” V. Kapituluaren 5.a artikulua xedatutakoaren arabera, 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”

b) Aipatu obren lan-baimenak eta irizpenak espedientean daude.

c) Kontu-hartzailearen iritziz, behean zerrendatzen diren eskatzaileen obrek betetzen dituzte Oñatiko Udaleko aurtengo Zerga-Ordenantzako EIOZ-ren obren hobarien 3. A) II vii puntuari edo 3. A) II v puntuari jasotako baldintzak.

Ogasuna Batzordeak, ahobatez, honako aldeko irizpena igortzen dio Osoko Bilkurari:

- Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hobaria aplikatuko litzaieke:

**EGUZKI INDARRA AUTOKONTSUMORAKO OBRAK**

IZENA	NAN	HELBIDEA	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2021-3980	Instalazio futboltaikoa	95%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2022-103		95%

14

**HEZKUNTZA IKASTETXEETAKO OBRAK**

IZENA	NAN	HELBIDEA	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA
EREITEN FUNDAZIOA	G75136705	ARANTZAZUKO AMA KALEA 18	2021-3979	Haur eta lehen Hezkuntza eraikinetan berrikuntza lanak	95%

.”

Gaia azterturik, eta Ogasun batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**LEHENENGOA.**- Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hobaria aplikatuko litzaieke:

**EGUZKI INDARRA AUTOKONTSUMORAKO OBRAK**

IZENA	NAN	HELBIDEA	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2021-3980	Instalazio futboltaikoa	95%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2022-103		95%


**HEZKUNTZA IKASTETXEETAKO OBRAK**

IZENA	NAN	HELBIDEA	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA
EREITEN FUNDAZIOA	G75136705	ARANTZAZUKO AMA KALEA 18	2021-3979	Haur eta lehen Hezkuntza eraikinetan berrikuntza lanak	95%

**BIGARRENA.-** Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau kontu-hartzaileari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta, eta Ogasun Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**9.- Hala badagokio, larrialdi-mozioak.**

Ez dira aurkeztu.

**10. 2021eko abenduaren 11tik 2022 urtarrilaren 20ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 1257 zenbakitik 33 zenbakira.**

15

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**11. 2022ko Toki Gobernuko Batzordeen akten berri ematea (1. Saioa).**

Toki Gobernuko batzordearen 1. Saioaren (2022/01/13koa) aktaren berri ematen da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**12.- Galderak eta eskaerak.**

Ez daude.

Besterik ezean, 18:45ak zirenean, Alkateak amaitutzat jo zuen bilkura, eta esandakoak jasota gera daitezten egin dut agiri hau Alkatearen ontzat emanarekin.

O.E

Alkateak

Idazkaria

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan